



## **LARRIALDIAK KUDEATZEKO LEGEA ALDATZEKO LEGE-PROIEKTUA**

### **ZIOEN AZALPENA**

Apirilaren 3ko 1/1996 Legea, Larrialdia Kudeatzekoa, arau aitzindaria izan zen, sistema bakarrean biltzen baitzituen edozein istripuren ondoriozko larrialdi arrunt eta egunerokoen kudeaketa nahiz hondamendi edo lazeria publikoen aurreko erantzunak.

Idea horren oinarria zen larrialdietako zerbitzuak apartekoak ez diren egoeretan elkarlanean eta koordinatuta jarduteak, herritarrei aparteko garrantzi kolektiborik gabeko kasuetan arreta eraginkorra ematen laguntzeaz gain, gizartearen eta erakundeen sarea geldiaraziko lukeen hondamendiaren kasurako prestatzea sustatzen duela.

Urte hauetako guztietako esperientziak adierazten du eredu egokia aukeratu dela, beste leku batzuetan eredu eta inspirazio-iturri gisa erabili baita.

Hala eta guztiz ere, denbora igaro denez, beharrezkoa da araututako ereduaren zenbait alderdi eguneratzea, hala nola: erakunde eta zerbitzuen jardura hitzartu eta erlazionatzeko ahalegina, sistema informatikoak eta komunikazioak eguneratzea, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistemako zerbitzuko prestakuntza indartzea, jarduteko prozedura estandarizatzea, ekimen pribatua eta gizarte-ekimena sektore publikoaren jarduerarekin integratzea.

Aurreko diagnostikoak agerian utzi du indarrean dagoen erregulazioak zenbait hutsune dituela, aurreikuspenaren eta alertaren antolamendua, herritarren eskubide eta betebeharrak, norberaren babeseko betebeharrak edo zigor-erregimena bezalako alderdien inguruan.

Bestalde, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistema segurtasun publikoko sistemaren eremu zabalagoan integratu behar da eta sistema horren arau gorena Euskadiko segurtasun publikoaren sistema antolatzeke legea da. Lege horrek finkatzen ditu segurtasun publikoko sistemaren beste zati batzuekin erlazionatzeko printzipioak eta, gainerakoan, berariazko legeriara igortzen du. Lege horretan, besteak beste, EAEko Poliziaren eta Larrialdietako Zerbitzuen Ikastegia arautzen da, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistemako kideen prestakuntza eta gaikuntzarako tresna den aldetik.

Lege honetan proposatutako aldaketaren helburua da Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistema finkatzea, larrialdietako eta babes zibileko egitura eta zerbitzuak eta herritarrekiko harremanak sendotuta, egun indarrean dagoen sistemaren oinarriak aldatu gabe.

Horretarako, aldaketak honako arlo hauek jorratzen ditu:

a) Herritarrek arriskuei eta horien aurka babesteko neurriei buruzko prestakuntzaren eta informazioaren inguruan dituzten eskubide eta betebeharrak arautzen ditu; aldi berean, herritarrek larrialdiei aurre egiteko bitartekoetan inplikatzeko saiaterik da.

b) Larrialdien aurreko aurreikuspeneko eta prebentzioko bitartekoak indartzen ditu, alerten sarea araututa eta zerbitzu meteorologikoak babes zibilarekin lotuta.

c) Elementu ahulak dituztelako edo arriskutsuak izan daitezkeelako segurtasunerako garrantzitsuak diren erakunde publiko edo pribatu guztiek Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistemarekin duten lotura estutzen du.

d) Norberaren babeseko eskubide eta betebeharrak, betebeharrak horiek bete daitezkeen sustatzeko bitartekoak.

e) Otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzea, aldatzen du, "babes zibila eta larrialdiak" eskala sortu eta agintaritzaren agenteen maila emateko larrialdietako operatiboak koordinatzen dituzten larrialdietako arretako eta babes zibileko langileei.

f) Larrialdien aurreko esku-hartze zerbitzuetako langileen jardun nabarmengarriak aintzat hartzeko bereizgarriak sortzea jasotzen du, bai eta larrialdietan herritarren inplikazioa eta zerbitzu horiekiko elkarlana aintzat hartzekoak ere.

g) Besteak beste, babes zibileko eta larrialdietako legezko betebeharrak ez betetzeagatiko edo larrialdietako deien arreta zerbitzua eteteagatiko arau-haustea eta zigorrak biltzen dituen tipikotasun-printzipioaren arabera zigor-erregimena arautzen du.

h) Ezartzen du lurraldea antolatzeko agiriak eta hirigintza planek kontuan izan behar dituztela arriskuaren inbentarioa eta maparen zehaztapenak; eta jaso behar dituztela neurriak balizko hondamendi eta lazerien arriskuak eta eragina prebenitzeko.

i) Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa arautzen du, babes zibileko planek xedatutakoaren eta egoki diren taktika operatiboen arabera edonolako larrialdietan esku hartu behar duten zerbitzuen jarduna jakinarazi eta koordinatzeko euskarri teknologiko eta logistikoaren oinarri-plataforma den aldetik.

j) Jasotzen du informatika- eta telekomunikazio-arloko estandarrak ezartzea, Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari aukera emango diotenak Euskadiko larrialdietako eta segurtasuneko oinarriko zerbitzuen gune operatibo guztiekin konektatzeko eta koordinatzeko.

k) 112 telefono-zenbaki bakarraren bidez larrialdiko deiak hartzeko zerbitzua biltzen du, horren xedea izango da hiritarrek Euskadin egiten dituzten larrialdiko laguntza-deiak hartzea, larrialdia edo gertakaria identifikatzea eta deia edo alarma dagokion zerbitzu edo agintariei helaraztea.

l) Kudeaketan parte hartzen duten administrazioek inplikaturako zerbitzuen konpromiso-karta sinatuko dutela biltzen du, herritarrek laguntza eskatu edo larrialdiko deia egiten dutenean azkar eta era integratu eta eraginkorrean jardungo direla bermatzeko.

m) Hondamendien aurreko Laguntza Atala erregelamendu bidez eratzea xedatzen da; segurtasun arloan Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailaren mende egongo da eta hainbat administrazio edo erakunde pribatutako langileak bildu ahal izango ditu; laguntza eskatzen zaionean, larrialdi-egoeretan pertsonak eta ondasunak babestuko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean edo lurralde horretatik kanpo. Era berean, unitate horrek nazioarteko lankidetzako misioak ere egin ahal izango ditu.

**Lehenengo artikulua.-** Aldatu egingo da Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen 1. artikuluko 1. paragrafoa. Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

*"1. Lege honen xedea da Euskal Autonomia Elkarteko Administrazio Publikoen jardura antolatzea, pertsonen, ondasunen eta ondare kolektiboari naturak, teknologiak edo gizakiak eragindako kalteak, arriskuak edo mehatxuak saihesteko, gutxitzeko edo zuzentzeko, izan ditzakeen eragin edo eragileen handitasunak edo larritasunak, horren ondorioz, eragin kolektibo larria, hondamendia edo lazeria publikoa dakarrenean; baita horietatik erator daitezkeen urgentziatzko edo larrialdiko beste kasu batzuetan edota hainbat zerbitzu eta eragileen koordinazioa eska dezaketenak ere.*

*Aurrekoen zati dira hondamendia edo lazeria publikoa proboka dezaketen meteorologia-fenomenoak, bereziki klima-aldaketaren eraginaren ikuspegitik."*

**Bigarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeari I bis kapitulu berria erantsen zaio, eta izenburu hau izango du: *I bis atalburua.- Eskubideak eta betebeharrak.*

**Hirugarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen I bis kapituluari 2 bis artikulua berria erantsen zaio, eta idazketa hau izango du:

*"2 bis atala.-*

*1. Eragiten dieten arrisku kolektibo larrien, hartu beharreko norberaren babeserako neurrien eta arrisku horiei aurre egiteko aurreikusitako neurri publiko, araudi eta babes zibileko planen berri izateko eskubidea dute herritarrek.*

*2. Autonomia Erkidegoan bizi den pertsona orok du zuzenean eragin diezaioketen babes zibileko eta larrialdietako araudia eta planak egiteko prozesuan parte*

*hartzeko eskubidea, jendaurreko erakustaldiko eta kontsultako eta herritarren parte-hartzeko izapideen bitartez.*

*3. Herritarrek agintariengana eta babes zibileko gainerako organo eta zerbitzuengana jo dezakete, kexak, eskaerak eta proposamenak egiteko gai horren ingurukoak eta bere eskumenekoak diren arrisku, aurreikuspen eta bitartekoei buruz.*

*4.- Autonomia Erkidegoan bizi den pertsona orok du babes zibileko zereginetan laguntzeko eskubidea, honako hauen bitartez:*

*a) Norberaren babeserako plan eta neurriak hartu, mantendu eta aplikatzea.*

*b) Babes zibileko boluntarioen egitura eta erakundeetan sartzea.*

*c) Babes zibileko zereginetan parte hartu eta ekarpenak egitea.*

*Eskubide horretaz baliatu ahal izateko, arauak eta agintarien eta babes zibileko zerbitzuetako arduradunen jarraibide eta oharrak bete beharko dira.”*

**Laugarren artikulua.-** Larrialdiak kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen I bis kapituluaren 2 ter artikulua berria erantsen zaio, eta idazketa hau izango du:

*"2 ter atala.-*

*Autonomia Erkidegoan bizi den pertsona orok babes zibila kudeatzeko zereginetan laguntzeko betebeharra du, lege honen eta berau garatzeko arauen arabera; eta ildo horretan, betebeharrak hauek dituzte:*

*a) Legez ezarritako norberaren babeserako neurriak hartzea, bai eta, hala badagokio, horiek garatzeko beharrezko bitarteko materialak eta giza bitartekoak mantentzea ere.*

*b) Eskumena duten agintariei informazioa ematea, kasu bakoitzean aplikatu beharrezko araudian aurreikusitako moduan eta dagokion edukiarekin, eta, oro har, arrisku-egoerak eragin edo gaizkiago ditzaketen egoerei buruzko informazioa helaraztea.*

*c) Beharrezko ikuskaritzak egitea, indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera; horretarako, ikuskariei lokal edo establezimenduetan sartzeko utzi beharko zaie.*

*d) Babes zibileko agintariei jakinaraztea edozein bidetik ezagututako larrialdi-egoera eragin ditzakeen edozein gorabera.*

*e) Ekintzak eta simulazioak egiten laguntzea, baita larrialdi-simulazioetako esku-hartzean ere, bidezko arazoirekin batentzatik eta proportzionaltasun-printzipioaren arabera eskatzen zaienean.*

*f) Babes zibilaren arloko agintaritza eskudunek emandako larrialdiko jarraibide eta neurriak jarraitzea, baita agintari horiek emandako agindu orokor eta bereziak betetzea ere."*

**Bosgarren artikulua.-** Larrialdiak kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen I bis kapituluaren 2 quater artikulua berria eranstean zaio, eta idazketa hau izango du:

*"2 quater atala.-*

*1. Hondamendi, lazeria publiko edo arrisku kolektibo larriko egoeren aurrean, edozein dago behartuta babes zibileko agintaritza eskudunek eskatutako laguntza pertsonalak betetzera, pertsonak, ondasunak eta ondare kolektiboa babesteko asmoz, sortutako egoeraren eta bakoitzaren aukeren neurria. Zerbitzu horiek ematea nahitaezkoa da eta horregatik ez da inolako kalte-ordainik jasoko.*

*2. Larrialdiaren izaerak beharrezkotzat joz gero, babes zibileko agintariak atzeman, esku hartu eta aldi baterako bete ditzakete beharrezko ondasunak larrialdiari aurre egiteko. Jarduera horiengatik kalte eta galerak jasaten dituzten pertsonak, entitateak edo enpresek legean ezarritako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dute.*

*3. Babes zibilaren arloko agintaritza eskudunek pertsona, erakunde edo enprekin hitzarmenak sustatuko dituzte, larrialdiren bat gertatuz gero, horien bitarteko eta zerbitzuak modu eraginkorrean eskura izan ditzaten.*

*4. Hondamendi, lazeria, hur-hurreko aurri edo antzeko egoera larri eta urgenteetan etxean sartu ahal izango da, pertsonak eta gauzak berehalako kalte larriak jasan ditzaten eragozteko bada".*

**Seigarren artikulua.-** Larrialdiak kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen I bis kapituluaren 2 quinquies artikulua berria eranstean zaio, eta idazketa hau izango du:

*"2 quinquies atala.-*

*Babes zibileko agintariekin lankidetzan jarduteko betebeharrak berezia dute babes zibilerako jarduera garrantzitsua duten pertsonak eta entitateak eta, bereziki, honako hauek:*

*a) Urrakortasun edo arriskutsutasunagatik, indarrean dagoen araudiaren arabera norberaren babeserako neurriak hartzea behartuta dauden jarduerak burutzen dituztenak.*

*b) Enpresa publiko edo pribatuaren arriskuen aurreko zaintza eta babeseko zerbitzuak.*

*c) Ondasun publikoen gaineko eskubideen titularrak edo zerbitzu publiko edo interes orokorreko zerbitzuak kudeatzen dituztenak eta, bereziki, osasun-zerbitzuekin lotutako jarduerak edo oinarriko zerbitzu eta hornidurak kudeatzen dituztenak, hala nola ur-, gas- eta elektrizitate-banaketa eta -hornidurako nahiz telefonia eta telekomunikazioetako zerbitzuak ematen dituztenak.*

*d) Gizarte-hedabideak."*

**Zazpigarren artikulua.-** Larrialdiak kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen I bis kapituluari 2 sexies artikulua berria erantsen zaio, eta idazketa hau izango du:

*"2 sexies atala.-*

*1. Aurreko atalean aipatutako jarduerak eta zerbitzuak kudeatzen dituzten pertsonak eta entitateak behartuta daude babes zibileko agintaritzaren eskudunei informazioa ematera, babes egokia ziurtatzeko jardueren inguruan, baita babes zibileko eta horren bilakaerari buruzko arriskuen gaineko informazioa ere.*

*2. Ondorio guztietarako, zaintza eta babeseko zerbitzuak, enpresa publiko edo pribatuaren aurrean, babes zibileko laguntzailatzat hartzen dira; horren ondorioz, babes zibileko planetan eginkizunak atxiki dakizkieke eta, hala egokituz gero, babes zibileko agintaritzaren eskudunek haien beharra izan.*

*3. Ondasun publikoen gaineko eskubideen titularrak edo zerbitzu publikoak edo interes orokorrekoak kudeatzen dituztenak bereziki daude behartuta eskumeneko administrazioari laguntzera, dituzten baliabide materialak eta pertsonalak erabiltzen, beren jarduerak behar bezala gauzatzeko larrialdi-egoeren aurrean.*

*4. Lege honek araututako alertako eta larrialdiko egoeretan, telekomunikazio-sare eta -zerbitzuen titular diren enpresek babes zibileko agintarien eskura jarri beharko dituzte horiek, biztanleriari abisuak edo alertak iragartzeko.*

*5. Lege honek araututako alertako edo larrialdiko egoeretan, titulartasun publiko edo pribatuko gizarte-hedabideak babes zibileko agintariekin daude behartuta lankidetzan jardutera. Alerta- edo larrialdi-egoerak hala eskatuz gero, hedabide horiek, lehentasun osoz eta berehala, doan iragarri edo argitaratu behar dituzte agintariak helarazitako abisu eta jarraibideak. Kasu guztietan, komunikatua egiten duen babes zibileko agintaritzaren zein den adierazi behar da."*

**Zortzigarren artikulua.-** Larrialdiak kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen I bis kapituluaren 2 septies artikulua berria erantsen zaio, eta idazketa hau izango du:

*"2 septies atala.-*

*1. Babes zibilaren arloko agintaritzaren eskudunak har ditzake hartzailentzat derrigorrez bete beharreko neurriak, aplikatu beharreko planak ezarritakoaren edo larrialdiko beharrek edo babestu beharreko ondasunek eragindako premiaren arabera, besteak beste hauek:*

*a) Pertsonak beren etxeetan edo leku seguruetan sartuta egonartzea.*

*b) Pertsonak arrisku-lekuetatik atera edo urruntzea.*

*c) Arriskuko edo ekintzako eremuetarako sarbidea mugatzea.*

*d) Zerbitzu publiko eta pribatuen erabilera edo ondasunen kontsumoa mugatu edo baldintzatzea.*

*e) Leku jakin batzuetan jarduerak mugatu edo debekatzea eta arreta, prebentzio edo jokabide jakin batzuk hartzeko betebeharra ezartzea.*

*2. Babes zibileko agintaritza eskudunak herritarren eskubideei eragiten dieten agindu eta jarraibideak eman ditzake, legean ezarritako baldintzetan.*

*3. Eskubideak murrizten dituzten neurrien eta laguntza pertsonalak edo materialak ezartzen dituztenen iraunaldia zehatz-mehatz mugatuko zaio larrialdiari aurre egiteko behar den denborari; halaber, arriskuari proportzioz egokituko dira.”*

**Bederatzigarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeari II. kapituluaren lehenengo bis atal berria eranstean zaio, eta izenburu hau izango du: *I bis saila.- Aurreikuspena.*

**Hamargarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen II. kapituluaren lehenengo bis atalari 8 ter artikulua berri bat eranstean zaio, eta idazketa hau izango du:

*"8 bis atala.-*

*1. Segurtasun arloan Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailak Euskal Autonomia Erkidegoari atxikitako arriskuen inbentarioa eta mapa taxutu eta mantenduko ditu.*

*2. Euskadiko arriskuen inbentarioan bilduko dira Euskadiko pertsonen, ondasunen, eta ondare kolektiboaren eta ingurumen-ondarearen arrisku larriak eragin diezazkieketen egoera edo jardura guztiak. Era berean, erkidegorako interesgarritzat jotzen diren arrisku-egoerak zehaztuko ditu.*

*3. Euskadiko arrisku-mapa autonomia-erkidegoari eragiten dioten arrisku garrantzitsuen kokapenaren kartografia ofizialaren bilduma ideala da eta bertan zehazten da arrisku bakoitza zein lurralde-eremutan azaltzen den.*

*4. Arriskuen inbentarioa eta mapa taxutzeko, egoki diren arrisku-azterketak egingo dira, bereziki kontuan hartuta udalen eta foru-aldundien babes zibileko planetako informazioa, bai eta herri-administrazioetako organoek arrisku bakoitzerako egindako azterlanetako bestelako datuak ere; hala badagokio, egoki diren hitzarmenak sinatu ahal izango dira.*

*Euskadiko arriskuen inbentarioa eta mapa berrikusi eta eguneratu egiten dira aldian-aldian.*

*5. Euskadiko arriskuen inbentarioa eta mapa Euskadiko herri-administrazioei helaraziko zaizkie.”*

**Hamaikagarren artikulua.-** Larrialdiak kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen II. kapituluaren lehenengo bis atalari 8 ter artikulua berria eranstean zaio, eta idazketa hau izango du:

*"8 ter atala.-*

*1. Segurtasun arloan Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailak babes zibileko informazio eta alertako sare bat sortu eta koordinatuko du, larrialdiko egoerak prebenitu, antzeman eta jarraitzeko, bai eta babes zibileko agintariei, bereziki ahulak diren zerbitzu publikoei eta herritarrei pertsonen, ondasunen eta ondare kolektiboaren segurtasunerako mehatxuei buruzko informazioa emateko ere.*

*2. Informazio- eta alerta-sareko parte izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioa eta horren sektore publikoko erakunde guztiak, pertsonentzat, ondasunentzat eta ingurumenarentzat arriskutsuak diren fenomenoak antzeman, jarraitu eta aurreikusten lagun dezaketanak.*

*Halaber, Autonomia-erkidegoko lurraldean egon daitezkeen beste kontrol- eta alarma-sistema publiko nahiz pribatu batzuk funtzionalki sare autonomikoan integratzeko ahalegina egingo da.*

*3. Herritarrei helarazten zaien prebentzioko informazioak hartzaile diren beste kolektibo batzuentzako eraginkorra izan beharko du, bereziki, haur, adinako, ezindu edo bereziki ahulak diren beste batzuentzat.*

*4. Alerta edo alarmako instalazioen kokalekua segurtasun arloan Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailak zehaztuko du. Kokalekua erabaki ondoren, hiri-plangintzako hirigintza-tresnek alerta edo alarmako instalazioetarako beharrezko kokaleku-aurreikuspenak bildu beharko dituzte.*

*Onura publikokotzat jotzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko babes zibileko informazio- eta alarma-instalazioak ezartzeko beharrezko lur-sail eta ondasunak, nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.*

*5. Informazio eta alarma automatikoko sarea ezartzeko beharrezko ondasun edo eskubideen nahitaezko desjabetzeak edo zortasunak desjabetzearen arloan indarrean dagoen legeriaren arabera egingo dira."*

**Hamabigarren artikulua.-** Larrialdiak kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen II. kapituluaren lehenengo bis atalari 8 quater artikulua berria eranstean zaio, eta idazketa hau izango du:

*"8 quater atala.-*

*1. Meteorologiako Euskal Zerbitzuak parte hartzen du aurreko atalean aipatutako informazio eta alertako sarean.*

*2. Meteorologia-fenomeno ezegokiak iragartzeko eta segimendua egiteko plan bat prestatuko da eta ezegokitasun-atalaseak definituko ditu, pertsoneri edo ondasunei,*



*zuzenean edo zeharka, kalteak eragiteko aukeraren arabera, eta atalase bakoitzean zerbitzu publikoei edo herritarrei jakinarazi beharreko abisu-buletinak prestatuko ditu.”*

**Hamahirugarren artikulua.-** Larrialdiak kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen II. kapituluaren lehenengo bis atalari 8 quinquies artikulua berria eranstean zaio, eta idazketa hau izango du:

*"8 quinquies atala.-*

*Lurraldea antolatzeke agirieke eta hirigintzako planek kontuan izango dituzte atalburu honetan araututako arriskuen inbentarioa eta maparen zehaztapenak eta balizko hondamendi eta lazerien arriskuak eta eragina prebenitzeko neurriak ezarriko dira. Segurtasun arloan Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailak administrazio eskudunen eskura jarriko du plangintzaren xede den lurraldeko babes zibileko arriskuei buruzko informazioa.*

**Hamalauugarren artikulua.-** Aldatu egingo da Larrialdiak kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen 10. artikulua. Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

*"10. atala.-*

*1. Urrakortasun edo arriskugarritasunagatik pertsoneri, ondasuneiri edo ondare kolektiboari arriskuak eragin diezazkieketen pertsona fisiko edo juridikoek norberaren babeserako honako neurri hauek hartu beharko dituzte, arauz ezarritako baldintzetan:*

*a) Norberaren Babeserako Plana egitea, arauz ezarritako eduki eta prozedurak bilduko dituen, eta plan hori eta hartutako norberaren babeserako gainerako neurriak, bai eta horien aldaketak ere, administrazio eskudunari jakinaraztea.*

*b) Berariazko araudiaren arabera erregistroan gorde beharrekoak diren datuak Euskadiko Norberaren Babeserako Planen Erregistro Orokorreara bidaltzea, eta datu horiek eguneratuta edukitzea.*

*c) Norberaren babeserako arduradun bat izendatzea.*

*d) Babes zibileko agintariei eta zerbitzuei azkar ematea edozein larrialdiren eta beren jardueren ondoriozko arriskua nabarmen handitzea eragin dezakeen edozein gorabeheraren berri.*

*e) Dagokion norberaren babeserako planean aurreikusten diren edo egoeraren arabera egokienak eta arrazoizkoenak diren neurriak aplikatzea.*

*f) Agintari publikoekin lankidetzan jardutea herritarrentzat, beren jarduerak eragindako ingurunean norberaren babeserako neurriak ezagutarazi eta sustatzeko.*

*g) Babes zibileko agintariei eta horien agenteei jarduerari buruz eskatzen duten informazioa ematea, bai eta ikuskaritza-zereginetan dihardutenean ere.*

*h) Arriskuko eta larrialdiko egoerei aurre egiteko beharrezko bitarteko pertsonalak eta materialak mantentzea.*

*i) Establezimendu, zentro edo jarduerak babes zibilaren eremuan eragin ditzakeen kalteak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguru bat edo finantza-berme baliokideren bat kontratatzea.*

*2. Arauz katalogatuko dira aurreko lerroaldean aurreikusitako babes-neurriak betetzeko betebeharra duten jarduera, instalazio, zentro, establezimendu eta bulegoak."*

**Hamabosgarren artikulua.-** Aldatu egingo da Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen 11. artikulua. Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

*"11 atala.-*

*1. Norberaren babeserako planetan finkatzen da jarduera, zentro, establezimendu, gune, instalazio edo egoitza baten marko organikoa eta funtzionala, pertsonen eta ondasunen gaineko arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko, eta larrialdietan erantzun egokia emateko, jarduerako titularraren mendeko esparruan, jarduera horiek babes zibileko sistema publikoarekin integratzen direla bermatuz. Plan horiek dagokien agirietan jasoko dira.*

*2. Norberaren babeserako planak, gutxienez, honako alderdi hauek bilduko ditu:*

*a) Toki edo saltoki horri eragin diezaioketen arriskuak antzematea eta ebaluatzea.*

*b) Arriskuak murriztera edo ezabatzerara bideratutako aurreneurrien plana.*

*c) Larrialdietarako plana, larrialdiko egoeretan garatu beharreko neurriak eta jarduerak biltzen dituena, hala nola alarma, sorospena eta hustuketa; plan hori babes zibileko planetan sartzea.*

*d) Instalazioetan lanean ari diren pertsonen informazio, prestakuntza eta hornikuntza egokia ematea. Araudi bidez hala eskatzen den kasuetarako, sorospena eta laguntza ematen espezializatuta dauden talde profesionalak antolatzea, beren baliabideekin osatuta.*

*e) Norberaren babeserako planean dauden neurrien eraginkortasunaz arduratuko den pertsona izendatzea; babes zibilaren gaian aginpidea dutenekin eduki behar dituen harremanak ere ezartzea.*

*3. Norberaren babeserako planen bat izateko betebeharra duten enpresa, erakunde eta zentroek babes zibileko agintaritza eskudunekin lankidetzan jarduteko betebeharra dute, beren planari eta, instalazioen kanpoko aldeari eragiten badiote, sortzen dituzten larrialdiei egoki erantzuteko beharrezko bitarteko tekniko eta materialei buruzko informazio guztia emanda.*

*4. Norberaren babeserako planak teknikari gaituek idatzi behar dituzte, enpresaren edo jardueraren titularraren erantzukizunpean, eta arauz ezarritakoaren arabera egin behar zaie txostena edo homologatu edo onartu egin behar dira, plan bakoitzaren motaren arabera.*

*5. Norberaren babeserako planen arduradunek babes zibileko zerbitzu publikoetako agintari eta arduradunek eskatutako prebentzioko edo jarduneko zeregin guztietan parte hartu behar dute; deitzen dituzten bileretara joan eta agintariei jakinarazi planak estalitako edozein arrisku-egoerari edo planaren eraginkortasunari eragiten dion edozein gorabehera."*

**Hamaseigarren artikulua.**– Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeari 11 bis artikulua berria eransten zaio, eta honela idatzita egongo da:

*"11 bis atala.-*

*Eusko Jaurlaritzak norberaren babesaren kultura sustatuko du eta, bereziki, arrisku bereziko jardueretan aritzen diren enpresa eta erakundeen artean norberaren babeserako erakundeak eratzea, aholkularitza eta laguntza emanda."*

**Hamazazpigarren artikulua.**- Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeari 11 ter artikulua berria eransten zaio, eta honela idatzita egongo da:

*"11 ter atala.-*

*1. Euskal administrazioek biztanleria arrisku kolektibo larriei, hondamendiei eta lazeriei aurre egiteko prestatzeko beharrezko jarduerak burutu behar dituzte, bereziki, informazioko eta dibulgazioko kanpainen bitartez.*

*2. Norberaren babesaren arloko betebeharrak dituzten jarduerak burutzen dituen erakunde publiko eta pribatu orok herri-administrazioekin lankidetzan jardun behar du biztanleria prestatzeko jardueretan.*

*3. Babes zibileko agintaritzek ariketak eta simulakroak prestatu eta burutu behar dituzte. Arrisku bereziek eragindako eremu, zentro, establezimendu eta instalazioetan, aldizka ariketak edo simulakroak egin behar dira, egoki diren planen xedapenei jarraiki.*

*Ariketa, simulakro edo informazio-kanpainen sustatzaileek larrialdietako agintaritza eskudunari jakinarazi beharko diote, aldez aurretik, jarduera horiek burutuko dituztela eta kontrolerako datu jakin batzuk behar dituztela."*

**Hamazortzigarren artikulua.**- Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeari 11 quater artikulua berria eransten zaio, eta honela idatzita egongo da:

*"11 quater atala.-*

*Ikastetxeen hezkuntza-zikloetan nahitaezkoa izango da babes zibilaren inguruko informazioko, prebentzioko eta dibulgazioko jarduerak programatzea, eta aldizka ebakuazioko ariketa edo simulakro bat egin beharko da, egoki den norberaren babeserako planaren aurreikuspenen arabera.”*

**Hemeretzigarren artikulua.**- Aldatu egingo da Larrialdia Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen 12. artikulua. Aurrerantzean honela egongo da idatzita :

*"12 atala.-*

*1. Norberaren babeserako neurriak betetzen ez badira, babes zibileko agintariak betearazte subsidiariora jotzeko aukera izango dute, beharrezkoak diren errekerimenduak egin ondoren eta subjektu obligaziodunaren kontura, arriskuaren larritasunaren arabera beharrezkoak eta neurrikoak diren segurtasun-neurriak ofizioz hartuta.*

*2. Dolurik, errurik edo dagokion eginbidean hutsegiterik izanez gero edo norberaren babeserako legeak edo araudiak hautsiz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek parte-hartze publikoen gastuak ordaintzea eskatu ahal izango diete erantzuleei, legeria zibilean aurreikusitakoaren arabera.”*

**Hogeigarren artikulua.**- Larrialdia Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeari 12 bis artikulua berria erantsen zaio, eta honela idatzita egongo da:

*"12 bis atala.-*

*1. Eusko Jaurlaritzak onartutako babes zibileko planek eskatu ahalko dute, komunitaterako, horren egonkortasun ekonomiko eta sozialerako eta arrisku larri, hondamendi edo lazeriako kasuetan azkar lehengoratzeko ezinbestekoak diren azpiegitura kritiko eta baliabide gako zehatzetan jardueraren jarraipen-planak prestatzea eta ezartzea.*

*2. Ezinbesteko zerbitzuen jarraipen-planen helburua da arrisku larri, hondamendi edo lazeriako kasuetan komunitaterako funtsezko zerbitzuak berehala berreskuratu, lehengoratu edo/eta jarraitzea ahalbidetzen duten neurri eta prozedurak aurreikustea, larrialdian zehar eta amaitu ondoren ezinbesteko funtzioek iraungo dutela ziurtatuz.*

*3. Jarraipen-planak arriskuen eta elementu ahulen, zerbitzuak jarraitzeko eta hori lehengoratzeko eraginen eta eremu kritikoen, prozesu kritikoak lehengoratzeko neurrien eta horretarako erabil daitezkeen baliabideen azterketa eta ebaluazioa izan beharko dute; bai eta planak ezarri, mantendu eta eguneratzeko beharrezko neurriak ere.*

*4. Jarraipen-planen aurreikusitako neurriak bai norberaren babeserako planetan bai azpiegitura kritikoak babesteko planetan ezarritako neurriekin koordinatu eta osatu beharko dira; eta, horiekin, hala dagokionean, dokumentu bakarrean bateratu ahal izango dira.”*

**Hogeita batgarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen II. kapituluaren hirugarren saileko 17. artikulua bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela egongo da idatzita:

*"2. Aurreko lerroaldean xedatutakoaren kalterik gabe, Babes Zibilerako Euskadiko Planak edo plan bereziek aurreikusi ahal izango dute udalbatzek edo lurralde historikoetako organo aginpidedunek arrisku zehatzetarako jarduera-plan bereziak landu eta onartu ahal izatea; beti ere, plan bereziek ezarritako norabideak kontuan hartuta."*

**Hogeita bigarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen III. kapituluaren ("Lazeriak ez diren larrialdiak kudeatzea" izenekoa) 23. artikulua bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela egongo da idatzita:

*"2. Segurtasun arloan Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailari dagokio atalburu honetan aurreikusitako larrialdietako esku-hartzeak egoki koordinatzea. Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak egindako lanaren bitartez egituratuko da batez ere koordinazioa, eta eragiteko taktikak izango dira gunen horien oinarritzko tresna."*

**Hogeita hirugarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen III. kapituluari ("Lazeriak ez diren larrialdiak kudeatzea" izenekoa) 24. artikulua aldatzen da, eta honela egongo da idatzita:

*"24. atala.-*

*1. Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa da euskarri teknologiko eta logistikoaren oinarri-plataforma, edonolako larrialdietan esku hartu behar duten zerbitzuen jarduna jakinarazteko eta koordinatzeko, babes zibileko planek xedatutakoaren eta egoki diren taktika operatiboen arabera.*

*2. Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari dagozkio:*

*a) Larrialdiko deien arreta-zerbitzua ematea, 112 telefono-zenbaki bakarraren bidez.*

*b) Beharrezko zerbitzuak koordinatzeko eta bateragarri egiteko laguntza teknikoa ematea.*

*c) Larrialdiaren garapenari jarraipena egitea, horretarako parte hartzen dutenen bitarteko eta baliabideen gaineko informazioa jasoko dute; eta, bitarteko eta baliabide horien koordinazioan laguntzea.*

*d) Babes zibileko informazio- eta alerta-sareko transmisioak jakinarazi, kontrolatu eta koordinatzeko sisteman parte hartzea.*

*e) Ekintzak Koordinatzeko Zentro eta Ekintza Integratuak Koordinatzeko Zentro gisa jardutea larrialdi aitortuko egoeretan, Autonomia Erkidegoaren Babes Zibileko plana aktibatu eta gero, eta aktibatzea formalki erabaki duen babes zibileko agintaritzak eskudunaren zuzendaritzapean.*

*f) Antolamendu juridikoak emandako bestelako zereginak.*

*3. Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa segurtasun arloan Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailaren larrialdiak kudeatzeko eta babes zibilaren arloko organo eskudunari dago atxikia, eta sailak berak zehaztutako lurralde-kokapenak izango ditu.*

*4. Segurtasun arloan Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailak informatika- eta telekomunikazio-arloko estandarrak ezarriko ditu, Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari aukera emango diotenak Euskadiko larrialdietako eta segurtasuneko oinarritzko zerbitzuen gune operatibo guztiakin konektatzeko eta koordinatzeko.*

**Hogeita laugarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen III. kapituluari ("Lazeriak ez diren larrialdiak kudeatzea" izeneko) 24 bis artikulua berria erantsi zaio, eta honela egongo da idatzita:

*"24 bis atala.-*

*1. 112 telefono-zenbaki bakarraren bidez larrialdiko deiak hartzeko zerbitzuaren xedea da hiritarren batek Euskadin egiten dituen larrialdiko laguntza-deiak hartzea, larrialdia edo gertakaria identifikatzea eta deia edo alarma dagokion zerbitzu edo agintariei helaraztea.*

*2. Deien arreta-zerbitzuak ez du biltzen herritarrak eskatutako laguntza ematea, hori zuzendaritza-zentro, administrazio eta erakunde eskudunei dagokie, eskumen-esleipeneko, antolamenduko eta funtzionamenduko arauen arabera.*

*3. Larrialdiko deien arreta-zerbitzurako sarbidea unibertsala, doakoa eta iraunkorra izango da Euskadin dagoen ororentzat.*

*Zerbitzua eman beharko da bai euskaraz bai gaztelaniaz. Segurtasun arloan Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailak beharrezko bitartekoak jarri beharko ditu Europar Batasuneko estatuetakoa gainerako hizkuntza ofizialetan zerbitzua emateko, baita ezinduek ere zerbitzua eskuratu ahal izango dutela ziurtatzeko bitartekoak ere."*

**Hogeita bosgarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen III. kapituluari ("Lazeriak ez diren larrialdiak kudeatzea" izeneko), 24 ter artikulua berria erantsi zaio, eta honela egongo da idatzita:

*"24 ter atala.-*

*1. Hiritar edo erakundeek Euskadiko Larrialdiak Kudeatzeko Zentroarekin dituzten elkarrizketak, telefonoz nahiz irrati bidez izandakoak, grabatu egongo dira.*

*2. Larrialdi bat kudeatzeko prozesuarekin zerikusia duten jarduera eta komunikazioak, telefonoz nahiz irratiz egin, Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren kudeaketa-sisteman erregistratuko dira, eta hori izango da larrialdiko gertaeren kudeaketari buruzko datuen informazio-iturri ofiziala.*

*3. Larrialdiko gertakari bat kudeatu eta beharrezko laguntza-jarduerak gauzatzeko beharrezko datu pertsonalak eta informazioa datu pertsonalak babesteko arloan indarrean dagoen legeriaren arabera bilduko dira.*

*Indarrean dagoen legeriak babestutako datuak bildu ahal izango dira, borondatez laga edo bildutako datuak badira edo larrialdiari aurre egiteko edo beharrezko laguntza materiala emateko ezinbestekoak badira.*

*4. Larrialdiko gertaera baten kudeaketari buruzko informazioa tarteko zerbitzu guztien eskura jarriko da, kudea dezaten, bai eta pertsonen edo eragindakoaren ondasunen edo hirugarrenen osotasuna babesteko edo eragindakoaren edo hirugarrenen hil edo biziko premia bati erantzuteko beharrezko diren izaera pertsonaleko datuak ere.*

*Larrialdiko gertakariaren kudeaketa amaitu bada, informazio hori agintari judizialaren eskariz soilik emango da.*

*Indarrean dagoen legeriak eta lege honek berriaz ezarritako kasuetan soilik laga ahal izango dira deiak hartu eta kudeatzen eta gertakariak eta laguntzak burutzetik lortutako datu pertsonalak.*

*5. Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak kudeatutako gertakarien grabazio eta erregistroak, gehienez, bi urtez gordeko dira, agintari judizialak besterik agintzen ez badu.*

*6. Euskadiko Larrialdiak Kudeatzeko Zentroaren organo arduraduna izango da fitxategien erantzule eta datuen konfidentziasuna, segurtasuna eta zuzentasuna bermatzeko eta indarrean dagoen legeriak aitortutako eragindakoen eskubideak gauzatzeko beharrezko neurri teknikoak, kudeaketakoak eta antolamendukoak hartu beharko ditu."*

**Hogeita seigarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen III. kapituluaren ("Lazeriak ez diren larrialdiak kudeatzea" izeneko), 25. atalari bigarren lehen aldian bat erantsen zaio, eta idazketa hau izango du:

*"2. Larrialdiko egoeretan pertsona eta ondasunei buruzko aurreneurriekin, arretarekin, sorospenarekin eta segurtasunarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten ihardueretan aritzen diren Euskal Herriko herri-administrazio guztiek eta erakunde publiko nahiz pribatuak lankidetzan aritu beharko dute Euskadiko Larrialdiak Kudeatzeko Zentroarekin, honakook betez:*

a) Azkar, eraginkortasunez eta eragimenez erantzungo diete larrialdiko egoerak konpontzeko aktibazio-eskaerei, eta horiek zehaztu beharko dute gertakari bakoitzari esleitutako baliabide-mota eta -kopurua.

*b) Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari mobilizatutako baliabideen, aktibazio-denboren eta larrialdiaren lekura iritsi eta larrialdia amaitu izanaren berri emango diote.*

*c) Jakinarazi beharko diote Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari ezagutzen dituzten eta, hainbat diziplina hartzen dituztenez, administrazio bat baino gehiagoren zerbitzuen esku-hartzea behar duten gertakariak.*

*d) Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak aktibatutako larrialdi-gertakarien itzulera-informazioa emango dute, gertakariak berriz tipifikatzeko eta funtsezko beste zerbitzu batzuk esku hartzeko garrantzitsuak diren larrialdiaren bilakaerari buruzko datuak adierazita."*

**Hogeita zazpigarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen III. kapituluaren ("Lazeriak ez diren larrialdiak kudeatzea" izeneko), 27.1 artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

*"1. Eusko Jaurlaritzak arauz ezarriko ditu bere organoek Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan parte hartu eta lankidetzan jarduteko moduak."*

**Hogeita zortzigarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen 27. artikuluari ("Lazeriak ez diren larrialdiak kudeatzea" izeneko), 3. paragrafo berri bat eranstean zaio, eta idazketa hau izango du:

*"3. Hitzarmen horiek inplikaturako zerbitzuen konpromiso-karta bat osatuko dute, pertsonen laguntza eskatu edo larrialdiko deia egiten dutenean azkar eta era integratu eta eraginkorrean jardungo direla bermatzeko. Horretarako, honako hauek beharko dituzte, gutxienez:*

*a) Erabilgarri dauden bitarteko pertsonal eta materialei, horien kokalekuari eta erabilgarritasunari buruzko informazioa aldizka jakinarazteko mekanismoa.*

*b) Deia inplikaturako zerbitzura deribatzea edo horren bitarteko eta baliabideek esku hartzea eragin dezaketen larrialdi-egoerak definitzea.*

*c) Asistentziako eskaera-deiak jakinarazteko protokolo eta prozedurak, bai eta gertakari edo larrialdi batean parte hartzen ari diren zerbitzuei informazioa itzularazteko mekanismoak ere.*

*d) Hala badagokio, Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan aurrez aurre edo telematikoki parte hartzeko moduak.*

*e) Asistentzia edo gertakari bakoitzaren segimendua nola egin behar den.*

*f) Koordinazio egokia eta asistentzia jakina ondoen emateko modua lagundu dezakeen beste edozein alderdi."*



**Hogeita bederatzigarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen V. kapituluko ("Babes zibileko boluntarioak" izeneko) 48. artikuluko lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela idatzita geratuko da:

*"1. Babes zibileko boluntarioen erakundeek aseguruak hitzartu behar dituzte, erakunde horietako kideei beren zereginetan sor dakizkiekeen arriskuak, hala nola istripuak, elbarritasuna edo heriotza, estaltzeko. Horrezaz gain, erantzukizun zibileko aseguruak edo beste finantza-berme baliokide batzuk izenpetu beharko dituzte, ezartzekoa den erregelamendu-araudiak jasotzen duen gutxieneko kapital aseguratu dutela, hirugarrenei eragindako kalteengatiko erantzukizun zibila estaltzeko."*

**Hogeita hamargarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen V. kapitulari ("Babes zibileko boluntarioak" izeneko) 49. artikulua berria eranstean zaio, eta idazketa hau izango du:

*"49. atala.-*

*Beren xedeen artean larrialdi-egoeran dauden pertsona eta ondasunak artatzea duten izaera altruista eta irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuek babes zibileko erakunde laguntzaileen izaera eduki ahal izango dute. Eusko Jaurlaritzak hitzarmenak egin ahal izango ditu erakunde horiekin. Hitzarmen horietan, gutxienez, honako hauek arautuko dira: beren bitarteko eta baliabideak eskueran jartzea; laguntzeko eta parte hartzeko modua, eta kasu horietan dagozkien konpentsazioak.*

**Hogeita hamaikagarren artikulua.-** Larrialdiak kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeari VI. kapitulu berria eranstean zaio, "VI. atalburua.- "Bereizgarri eta aintzatespenak" izenburuarekin.

**Hogeita hamabigarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen VI. kapitulari ("Bereizgarri eta aintzatespenak" izeneko), 50. artikulua berria eranstean zaio, eta idazketa hau izango du:

*"50. atala.-*

*1. Eusko Jaurlaritzak larrialdien aurreko esku-hartze zerbitzuetako langileen jardun nabarmengarriak jendaurrean aintzat hartzeko bereizgarriak sortuko ditu, bai eta herritarren inplikazioa eta zerbitzu horiekiko elkarlana funtsezko lanean (pertsonek, haien ondasunen eta ondare kolektiboaren babesa, alegia) aintzat hartzekoak ere, batik bat arrisku larriko, hondamendiko edo herri-lazeriako egoeretan gertatzen direnean.*

*2. Bereizgarri horiek jaso ahal izango dituzte Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistemako zerbitzu funtsezko eta osagarriek, zerbitzu horietako langileek, bai eta larrialdi-egoeren ondorioak gutxiagotzen eta arintzen laguntzen duten prebentzio-lanengatik nabarmendu diren pertsona eta erakundeek ere.*

*3. Bereizgarriak banaka eta taldeka eman ahal izango dira."*

**Hogeita hamahirugarren artikulua.-** Larrialdiak kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeari VII. kapitulu berria eranstean zaio, "VII. atalburua.- "Zehapen-araubidea" izenburuarekin.

**Hogeita hamalagarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen VII. kapituluari 51. artikulua berria eranstean zaio, eta idazketa hau izango du:

*"51. atala.-*

*1. Larrialdien arretaren eta babes zibilaren arloko arau-hauste administratiboak dira lege honetan tipifikatutako egintzak eta ez-egiteak, alde batera utzita, betiere, bidezko diren erantzukizun zibilak edo zigor-arlokoak.*

*2. Arau-hauste horiek honela sailkatzen dira: oso larriak, larriak eta arinak.*

*3. Lege honen eremuko herri-administrazioen zigortzeko ahalmena eraenduko da indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko araudian, lege honetan eta lege honen garapeneko araudian aurreikusitakoaren bidez.*

*4. Enplegatu publikoek beren eginkizunak betetzean duten erantzukizuna, betiere, aplikaziokoa zaien funtzio publikoko araudian aurreikusitakoaren arabera galdatuko zaie."*

**Hogeita hamabosgarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen VII. kapituluari 52. artikulua berria eranstean zaio, eta idazketa hau izango du:

*"52. atala.-*

*1. Larrialdien arretaren eta babes zibilaren arloko arau-hauste oso larriak dira honako jokabide hauek:*

*a) Arauzko norberaren babeserako planak ez prestatzea edo ezartzea edo haietan aurreikusitako neurriak ez aplikatzea, beharrezko denean.*

*b) Erregistro-datuak, berariazko araudiaren arabera, Euskadiko Norberaren Babeserako Planen Erregistro Orokorreara ez bidaltzea, edo homologaziotik ez pasaraztea, hori bidezko den kasuetan.*

*c) Arauzko norberaren babeserako planak ez aldatzea, eguneratzea edo berrikustea, hori bidezko den kasuetan.*

*d) Establezimendu, zentro edo jarduerak babes zibilaren arloan eragin ditzakeen kalteak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguruia ez edukitzea.*

*e) Babes zibilaren arloko agintaritzaren eskudunei, babes zibileko planei atxikitako baliabide eta zerbitzuen ikuskapena egitea eragozteko, bai eta indarrean dagoen*

*araudian aurreikusitako norberaren babeseko eskakizunak betetzen direla ikuskatzea eragozte* ere.

*f) Arrisku katalogatutako jarduerak kudeatzen dituzten erakundeek ezagutzen duten edozein egoera berehala jakinarazteko duten eginbeharra ez betetzea, hau da, babes zibileko plan bat aktibatzea eskatzen duen larrialdi bat eragin dezakeen edozein egoera ez jakinaraztea, bai eta norberaren babeserako planen aktibatzea ez jakinaraztea ere.*

*g) Larrialdi-abisu gezurrezkoak jakinaraztea edo eragitea, 112 telefonora deituz edo beste bide batzuen bidez, baldin eta administrazioek babes zibilaren arloan dituzten baliabideen esku-hartzea mobilizatzen badute.*

*h) Babes zibileko agintaritza eskudunek edo haien agenteek arrisku larri, hondamendi edo lazeriako egoeretan antolatutako agindu edo jarraibideak ez betetzea.*

*i) Arrazoi justifikaturik gabe, babes zibileko agintaritza eskudunak edo haren agenteek lege honen arabera agindutako prestazio pertsonalak egiteari uko egitea plan baten aktibazioko edo larrialdi aitortuko egoeretan.*

*j) Babes zibilaren arloko agintaritza eskudunek larrialdiari aurre egiteko beharrezkotzat jotzen dituzten ondasunak aldi baterako errekesitzea, esku hartzea edo okupatzea eragozte.*

*k) Ondasun publikoen gaineko eskubideen titularrei edo zerbitzu publikoak edo interes orokorrekoak, osasun-zerbitzuak edo oinarrizko zerbitzu eta hornidurak kudeatzen dituztenei ezarritako lankidetzako eginbeharrak betetzeari behin eta berriz uko egitea.*

*l) Gizarte-hedabideek ez betetzea babes zibileko agintaritza eskudunek alertako edo larrialdiko egoeran abisuak eta jarraibideak berehala, lehentasunez eta doan helarazi edo argitaratzeko egindako errekerimenduari.*

*m) Telekomunikazio-sare eta -zerbitzuen titular diren enpresek uko egitea haiek babes zibileko agintaritzen eskura jartzeari, biztanleriari abisuak edo alertak iragartzeko behar dituztenean.*

*2. Era berean, oso larritzat kalifikatuko dira larrialdien arretaren eta babes zibilaren arloko arau-hauste larri batengatik edo gehiagorengatik aurreko bi urteetan ebazpen irmo baten bidez zigortua izan den pertsona edo erakunde batek egindako arau-hauste larriak."*

**Hogeita hamaseigarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen VII. kapituluari 53. artikulua berria eranstean zaio, eta idazketa hau izango du:

*"53. atala.-*

*1. Larrialdien arretaren eta babes zibilaren arloko arau-hauste larriak dira honako jokabide hauek:*

a) 112 larrialdietarako telefonora dei gehiegizkoak, iraingarriak, mehatxagarriak edo txantxakoak egitea, lineak okupatuta zerbitzuaren eraginkortasunari erasanez, edo behin eta berriz dei hutsalak egitea.

b) Linearen edo mugikorraren titularrak egiazki ez identifikatzea 52.1 g), 53.1 a) eta 54 a) artikuluetan aipatzen diren deien egileak, horretarako errekerimendua egiten diotenean.

c) Babes zibilaren arloko agintaritza eskudunei, babes zibileko planei atxikitako baliabideen eta zerbitzuen ikuskapena egitea oztopatzea, erabat eragotzi gabe, bai eta indarrean dagoen araudian aurreikusitako norberaren babeseko eskakizunak betetzen direla ikuskatzea oztopatzea ere.

d) Babes zibileko planei atxikitako baliabideen eta zerbitzuen egoera ikuskatzea oztopatzea, erabat eragotzi gabe, bai eta indarrean dagoen araudian aurreikusitako norberaren babeseko eskakizunak betetzen ari direla ikuskatzea oztopatzea ere.

e) Larrialdi-egoerak eragin ditzakeen edozein gorabehera edo gertaera babes zibileko agintaritza eskudunei ez jakinaraztea, arau-hauste hori falta oso larria ez denean.

f) Mobilizatzeko agindura ez joatea talde eraginkorretako boluntarioak, agintaritza eskudunak aitortutako plan edo larrialdi bat aktibatzen denean, arrazoi justifikaturen bat izan ezean.

g) Larrialdi bati aurre egiteko beharrezko diren ondasun eta bitartekoen aldi baterako konfiskazio, esku-hartze edo okupazioa oztopatzea, erabat eragotzi gabe, neurri horiek babes zibileko agintaritza eskudunak agindu dituenean.

h) Babes zibileko agintaritzatik edo haren agenteengandik ateratzen diren agindu edo jarraibideak ez betetzea alertako edo larrialdiko egoeretan, arau-hauste hori falta oso larria ez denean.

i) Norberaren babeserako planen arduradunek ez jakinaraztea planak estalitako arrisku-egoerei eragiten dien edozein gorabehera edo gertaera, bai eta horri aurre egiteko ezarritako baliabide eta zerbitzuen eraginkortasuna ez jakinaraztea ere.

j) 54. atalean aipatzen diren eta babes zibileko plan baten aktibazio-egoeran izaten diren jokaerak, pertsonen bizia edo osotasuna arriskuan jarri denean edo arrisku kolektibo larriko egoera edo hondamendiaren edo lazeriaren ondorioak handitu direnean.

k) Babes zibileko planen zerbitzura jarritako ekipamendu edo instalazioen funtzionamendu egokia larriki kaltetzea edo aldaraztea.

2. Era berean, larritzat kalifikatuko dira larrialdien arretaren eta babes zibilaren arloko arau-hauste arin batengatik edo gehiagorengatik aurreko bi urteetan ebazpen irmo baten bidez zigortua izan den pertsona edo erakunde batek egindako arau-hauste arinak.”

**Hogeita hamazazpigarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen VII. kapituluari 54. artikulua berria erantsen zaio, eta idazketa hau izango du:

"54. atala.-

*Larrialdien arretaren eta babes zibilaren arloko arau-hauste arinak dira honako jokabide hauek:*

- a) 112 larrialdietarako telefonora dei gehiegizkoak, iraingarriak, mehatxagarriak maltzurak edo txantxakoak egitea.*
- b) Babes zibileko agintaritza eskudunak edo haren aginteek ezartzen dituzten neurriak edo jarraibideak ez segitzea edo ez errespetatzea, ariketak edo simulazioak egiten direnean.*
- c) Babes zibileko boluntarioek boluntario-izaera erakusten duten intsignia eta bereizgarriak eramatea edo erakustea, beren eginkizunak betetzen ez daudenean.*
- d) Babes zibileko planen zerbitzura jarritako ekipamendu edo instalazioen funtzionamendu egokia kaltetzea edo asaldatzea."*

**Hogeita hamazortzigarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen VII. kapituluari 55. artikulua berria erantsen zaio, eta idazketa hau izango du:

"55. atala.-

- 1. Arau-hauste oso larriak 30.001 eurotik 600.000 euro arteko isunarekin zigortzen dira. Gainera, lokala, zentroa edo instalazioa aldi baterako ixtea ere agindu ahal izango da, edo arrisku-jarduerak aldi batean etetea, betiere zigortzeko arrazoia ebatzi bada.*
- 2. Arau-hauste larriak 1.501 eurotik 30.000 euro arteko isunarekin zigortzen dira.*
- 3. Arau-hauste arinak 150 eurotik 1.500 euro arteko isunarekin zigortzen dira.*
- 4. Babes zibileko boluntario-talde eta -elkarteetako kideek egiten dituzten arau-hauste larri eta oso larriek, gainera, derrigorrezko baja dakarte kasuan kasuko elkarteetan eta beste bateko kide izateko ezgaikuntza, bost urtez arau-haustea oso larria izan bada eta hiru urtez larria izan bada.*
- 5. Zigorrek, betiere, graduatu egin behar dira, arau-hausteari dagokion egitearen larritasunaren arabera, honako hauek kontuan izanda: segurtasunean izan duen eragina, eragindako kalte-galerak, ondasun eta pertsonen eragindako arrisku objektiboa, jokabide arau-hausteari kanpoko garrantzia, kalte egiteko asmorik izan den eta arau-haustea berriro egin den, bai eta galera handiagoa ekiditeko kaltea konpontzearen arduradunak izan duen jarrera ere."*

**Hogeita hemeretzigarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen VII. kapituluari 56. artikulua berria eranstean zaio, eta idazketa hau izango du:

“56. atala.-

*1. Lege honetan aurreikusitako arau-hausteen erantzule izango dira lege honetan tipifikatutako egintzak egiten parte hartu duten pertsona fisiko edo juridiko guztiak. Erantzule izango dira, beraz, egite arau-hauslea zuzenean edo zeharka egiten duten guztiak, bai eta jarraibide edo aginduak ematen dituztenak edo arau-hauste hori egiteko beharrezko diren bitartekoak jarri dituztenak ere.*

*2. Establezimendu eta industrien titularrak, baita jardueren antolatzaile eta sustatzaileak ere, lege honetan araututa dauden arau-hauste administratiboan erantzule izango dira, baldin eta jardueran esku hartzen dutenek eginak badira, arau-haustea prebenitzeko eginbeharra betetzen ez dutenean, lege- edo erregelamendu-arauak urratuta.*

*3. Aipatutako titular eta antolatzaile edo sustatzaile horiek, era berean, erantzule izango dira, egintzaz edo ez-egitez, ikusle edo erabiltzaileen aldetik arau-hauste horiek egitea onartzen edo toleratzen dutenean. Onarpena edo tolerantzia izan dela joko da kasu honetan: norberaren edo besteen arriskurik gabe eta egoeraren beharretara egokitutako bitartekoekin, erantzuleak arau-haustea ekidin ahal izan duenean.*

*4. 52.1.g), 53.1.a) eta 54.a) ataletan aurreikusitako arau-hausteengatik erantzukizuna deiaren egilearengan eroriko da zuzenean.*

*Deia egiten edo eragiten duena adingabea edo ezgaia bada, eragindako kalte eta galeren eta, hala badagokio, hori lehengoratzearen erantzule solidario izango dira haren guraso, tutore edo izatezko edo zuzenbidezko zaintza daukatenak, haiei ezarritako eginbeharra ez betetzeagatik, hau da, adingabeek edo ezgaiek arau-hauste administratiboak egitea prebenitzea.*

*Deiaren egilea jarduteko gaitasuna duen hirugarren bat den kasuetan, hau da, linearen edo terminal mugikorraren titularrak beste denean, hark egiazki identifikatu beharko du hirugarren hori, horretarako errekerimendua egiten diotenean. Prozedura-izapide egokian eginbehar hori betetzen ez badu, 53.1.b) atalean aurreikusitako hutsegite larri baten egile moduan zigortua izango da.*

*Modu berean erantzungo du linearen edo terminal mugikorraren titularrak honako kasu honetan: hark identifikatzen duen arau-hausleari salaketa jakinaraztea ezinezko gertatzen denean, titular horri egotz dakioken arrazoiren bat dela-eta.”*

**Berrogeigarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen VII. kapituluari 57. artikulua berria eranstean zaio, eta idazketa hau izango du:

“57. atala.-

*1. Zigortzeko ahalmena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, udalerriei eta foru-administrazioari dagokie, atal honetan ezartzen diren*

*baldintzetan, beren eskumenen eta arau-hausteari dagokion jokabideak eragindako planaren eremuaren arabera.*

*2. Euskal Autonomia Erkidegoaren zigortzeko ahalmenaz, berriz, segurtasun arloan Eusko Jaurlaritzan eskumena duen saila baliatuko da, honako eskuduntza hauekin bat etorrira:*

*a) Larrialdien arretaren eta babes zibilaren arloko zuzendaritza eskudunari egokituko zaio arau-hauste arinengatiko zigorrek ezartzea.*

*b) Larrialdien arretaren eta babes zibilaren arloko zuzendaritza horren ardura duen sailburuordetzari egokituko zaio arau-hauste larriengatiko zigorrek ezartzea.*

*a) Larrialdien arretaren eta babes zibilaren arloko sail eskudunari egokituko zaio arau-hauste oso larriengatiko zigorrek ezartzea.*

*3. Zigor-espediente bat izapidetzen den bitartean ondorioztatzen bada hori bideratu eta ebazteko eskumena beste administrazio batek duela, espedientea hasi duen organoak itxi egingo du eta jarduerak Administrazio eskudunari igorriko dizkio, hark, hala badagokio, egoki den zehapen-prozedurari hasiera ematea erabaki dezan.*

*4. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta toki- eta foru-administrazioetako organo eskudunek izapidetzen ari diren espedienteen berri emango diote elkarki, espedienteari hasiera ematea erabaki eta ondorengo hamar eguneko epean."*

**Berrogeita batgarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen VII. kapituluari 58. artikulua berria eransten zaio, eta idazketa hau izango du:

"58. atala.-

*1. Arau-hauste oso larriek hiru urtera preskribatzen dute; arau-hauste larriek, bi urtera, eta arau-hauste arinek, urte batera.*

*2. Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zigorrek hiru urtera preskribatzen dute; arau-hauste larriengatik ezarritakoek bi urtera, eta arau-hauste arinengatik ezarritakoek, urte batera.*

*3. Arau-hausteen eta zigoren preskripzioa Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera balioetsiko da.*

**Berrogeita bigarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen VII. kapituluari 59. artikulua berria eransten zaio, eta idazketa hau izango du:

"59. atala.-

*1. Pertsona edo ondasunen segurtasunari eragiten dion gorabehera larriren bat gertatzen denean, establezimendua berehala ixtea, instalazioak prezintatzea edo jarduerak etetea erabaki ahal izango da kautelaz, indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko araudian ezarritakoaren arabera.*

*2. Salbuespen gisa, pertsona edo ondasunetarako arrisku larria edo berehalako perila dagoen kasuetan, neurri horiek babes zibileko agintariek edo haien agenteek hartu ahal izango dituzte, prozedurari hasiera eman aurretik, indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko araudian aurreikusitakoaren arabera."*

**Berrogeita hirugarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen VII. kapituluari 60. artikulua berria eransten zaio, eta idazketa hau izango du:

"60. atala.-

*1. Lege honetan tipifikatzen diren arau-hausteei dagozkien zigorrak, betiere, pertsona, ondasun eta instalazioei eragindako kalte-galeren ordaina emateko betebeharra alde batera utzita ezarri beharrekoak dira.*

*2. Era berean, zigor-prozeduraren ondorio den erantzukizun administratiboa bateragarri izango da aldarazitako egoera jatorrizko egoerara lehengoratzeko eskakizunarekin; hori erantzuleei eskatuko zaie, betiere posible denean.*

*3. Lehengoratzea posible izango ez balitz, kalte-ordainak egoera konpondu gabearen balioa iritsiko du, gehi eragindako kalte-galeren balioa.*

*4. Arau-hausleak lehengoratzeko edo zaharberritzeko eginbeharra betetzen ez duenean, administrazioak betearazte subsidiarioa egin ahal izango du, haren kontura.*

*5. Lege honetan aurreikusitako arau-hausteetakoren bat egiten duena, tarteko doluzko portaera edo portaera larriki arduragabe bat dela, eta larrialdi-egoera bat eragiten edo larriagotzen duena, behartuta egongo da Ogasun Publikoari ordainak ematera, egoera konpontzeko eragin dituen kostuengatik. Kalte-ordainezko ondorioen zehaztapena zigor-ebazpenean egingo da.*

*Zehazki, 52.1.g) atalaren kasuan, eta kasu bakoitzean bidezko diren zigorrak alde batera utzita, arau-hausleek ordaindu beharko dituzte baliabideen mobilizazioak eragindako kalte-galerak."*

**Berrogeita laugarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen bigarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

*"Bigarren xedapen osagarria.-*



*Euskal Autonomia Erkidegoari babes zibilaren eta itsas salbamenduaren arloan dagozkion eskuduntzak garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo eskudunei dagokie giza bizien sorospeneko eta salbamenduko zerbitzuen koordinazioa eta lurralde-itsasoan bilaketako, erreskateko eta salbamenduko zerbitzuak eskaintzea, autonomia-erkidegoz gaindiko interesa dagoen kasuetan.*

*Xede horretarako, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko itsas salbamenduko plana onartuko du. Plan horren edukiak autonomia-erkidegoz gaindiko planetan integratzea ahalbidetuko du, eta oinarritzko helburutzat izango ditu:*

*a) Bilaketako, giza bizien salbamenduko eta itsas kutsaduraren aurkako eragiketak egiteko gai diren euskal herri-administrazioetako eta gainerako erakunde publiko eta pribatuetako bitarteko guztien jarduera koordinatzea.*

*b) Dagoeneko badiren salbamenduko eta itsas kutsaduraren aurkako bitartekoak sustatzea eta pertsona gaituak prestatzea.”*

**Berrogeita bosgarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeari bosgarren xedapen gehigarri berri bat eransten zaio, eta honela idatzita egongo da:

*"Bosgarren xedapen osagarria.-*

*1. Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre egiteko Eskalako langileei, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioentzat legez ezarritako araubide juridikoa aplikatzen zaie, honako berezitasun hauekin:*

*a) Beren eginkizunak betetzerakoan, agintaritzaren agentearen izaera dute.*

*b) Arduraldiari, prestasunari eta laneko ordutegiari buruzko araubideak bereziak dira, haien ardurapeko zerbitzuen funtzionamendu iraunkorra eguneko hogeita lau orduetan eta urteko egun guztietan ziurtatzeko xedez.*

*c) Hautaketa-prozesuan, prozesu horretako zati moduan, kasuan kasuko kategoriari eta eginkizunei egokitutako espezializazioko ikastaro bat, EAEko Poliziaren eta Larrialdietako Zerbitzuen Ikastegiak emana, gainditu beharko dute. Ikastaro horiek egin beharra babes zibileko langile espezializatuen postuak betetzen dituzten barne-langileei ere eskatuko zaie.*

*2. Eusko Jaurlaritzak, funtzio publikoaren eta babes zibilaren arloan eskumena duten sailen proposamen bateratu baten bidez, erregelamenduz garatuko du Larrialdiei Aurre egiteko Eskalako langileei aplikagarri zaien araubidea, eta, ondorio horietarako, aurreko azpiatalean ezarritako baldintzak garatuko ditu.*

*3. Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre egiteko Eskalako langileei dagokie:*

*a) Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren funtzionamendu iraunkorrerako behar den sorospen profesionala ematea.*

b) Eusko Jaurlaritzako babes zibileko eta larrialdietako agintariei sorospen profesionala ematea, babes zibileko eta taktika eraginkorretako planak prestatzean, plan horiek aktibatzean eta haietan aurreikusitako neurriak aplikatzean eta, oro har, larrialdiko egoeretan.

c) Larrialdiko eta babes zibileko egoeretan dagozkien esku-hartze eginkizunak betetzea, talde logistikoetako eta aginte-postu aurreratuetako zerbitzu-eginkizunak barne direla, bai eta larrialdiaren kudeaketan tarteko diren zerbitzuen jardunaren koordinazioan ere, Legean aurreikusitako baldintzetan.

d) Aurreikuspen-, prebentzio-, plangintza-, azterketa- eta ebaluazio-eginkizunak betetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko babes zibileko eskumenak betetzearen inguruan.

e) Lege honetan arautzen diren zigor-espeditenteen ikuskatze- eta izapidetze-eginkizunak betetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko babes zibileko eskumenen eremuan.

f) Indarrean dagoen legeriak egozten dizkien gainerakoak.”

**Berrogeita seigarren artikulua.-** Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeari seigarren xedapen gehigarri berri bat eransten zaio, eta honela idatzita egongo da:

*"Seigarren xedapen osagarria.-*

1. Erregelamenduz eratuko da Hondamendien aurreko Laguntza Atala, segurtasun arloan Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailaren mende egongo dena, larrialdi-egoeretan pertsonak eta ondasunak babesteko Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean edo lurralde horretatik kanpo, haren laguntza eskatzen denean. Era berean, nazioarteko lankidetzako misioak ere egin ahal izango ditu.

2. Hondamendien aurreko Laguntza Atalean parte hartu ahal izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako enplegatu publikoek gain, beste herri-administrazio batzuen edo erakunde pribatuen zerbitzuko langileek ere, bidezko hitzarmenaren bitartez, bai eta babes zibileko boluntariorantzako kide diren pertsonak ere.

3. Hondamendien aurreko Laguntza Atala ez da izango administrazio autonomikoaren egitura organikoan modu iraunkorrean integratuko den organo edo administrazio-unitate bat, eta ez du ekarriko lanpostu-zerrendako langile-kopurua gehitzerik ere.

4. Hondamendien aurreko Laguntza Ataleko kideek egiten dituzten jarduerak borondatez eta doan egiten dira; nolana ere, atal hori EAEko Administrazioaren edo xede horretarako hitzarmenez administrazio horrekin lotutako beste administrazio batzuen giza baliabideekin osatzen denean, langile horiek guztiak beren ohiko lanpostuari dagozkien ordainsariak jasotzen jarraituko dute, sailkatuta dauden administrazio-unitatearen kontura, prestakuntzari eta praktikaldiari

*eskaintzen dieten denboran zehar, bai eta larrialdietako eginkizunetan betetako aldietan ere.*

*5. Erregelamenduak ezarriko du atalaren jarduera- eta funtzionamendu-araubidea."*

## **XEDAPEN GEHIGARRIA.- AGINDUA GOBERNUARI SUTEAK PREBENITZEKO ETA ITZALTZEKO ZERBITZUAK ETA SALBAMENDUKO ZERBITZUAK ARAUTZEKO LEGE-PROIEKTU BAT PRESTATZEKO**

Eusko Jaurlaritzak, hamabi hilabeteko epean, EAeko herri-administrazioetako suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuak eta salbamenduko zerbitzuak arautzeko lege-proiektu bat aurkeztuko du. Proiektu horren prestaketan, zerbitzu horiek emateaz arduratzen diren foru- eta toki-administrazioek ere parte hartu beharko dute, administrazio horien estatutu-araubidearen eta zerbitzuaren berezitasunak beren lanaren partikularitasunetara egokitzeko asmoz.

### **INDARGABETZEKO XEDAPEN BAKARRA**

Indargetuta geratzen da ekintzak koordinatzeko zentroak sortu dituen martxoaren 8ko 34/1983 Dekretua (EHAA, 37. zk., 1983ko martxoaren 29koa).

### **LEHENENGO AZKEN XEDAPENAK.- LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ESKALA SORTZEA"**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen erakunde autonomiadunetako kidegoak eta eskalak antolatu dituen otsailaren 25eko 1/2004 Legearen 14. artikuluko A) paragrafoari, 9. idatz-zati berri bat eransten zaio, eta honela idatzita geratuko da:

*"A) Goi Mailako Teknikarien Kidegoa*

*9.- Larrialdiei Aurre egiteko Eskala*

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen erakunde autonomiadunetako kidegoak eta eskalak antolatu dituen otsailaren 25eko 1/2004 Legearen 15.2. artikuluari, h bis) idatz-zati berri bat eransten zaio, eta honela idatzita geratuko da:

*"h bis) Goi Mailako Teknikarien Kidegoko Larrialdiei Aurre egiteko Eskalan, Arkitekturako, Ingeniaritzako (hainbat modalitate edo aukeretan), Ingurumen Zientzietako, Geologiako, Fisikako edo Kimikako graduko unibertsitate-titulazio ofiziala, edo Ingurumen Zientzietako, Geologiako, Fisikako, Kimikako, Ingeniaritza Nautiko eta Itsas Garraioko, Arkitekturako, Ingeniaritzako (hainbat modalitate edo aukeretan) lizentziaturako goi-mailako unibertsitate-titulazioa, edo aurrekoekin ofizialki homologatutako titulazioak."*

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen erakunde autonomiadunetako kidegoak eta eskalak antolatu dituen otsailaren 25eko

1/2004 Legearen 16. artikuluari, h bis) idatz-zati berri bat eransten zaio, eta honela idatzita geratuko da:

*"h bis) Goi Mailako Teknikarien Kidegoko Larrialdiei Aurre egiteko Eskalari, babes zibilaren arloan aholkularitza ematea eta irizpideak ezartzea, larrialdiko plan eta operatiboak prestatzea eta kudadzea, saiakuntza eta simulazioetan esku hartzea, segurtasun-sistemak ikuskatzea eta babes zibilaren arloko erakundeak koordinatzea."*

4. Paragrafo berri bat eransten zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen erakunde autonomiadunetako kidegoak eta eskalak antolatuta dituen otsailaren 25eko 1/2004 Legearen bigarren xedapen gehigarriko lehenengo paragrafoari, eta honela idatzita geratuko da:

*"f) Goi Mailako Teknikarien Kidegoko Larrialdiei Aurre egiteko Eskalan borondatez integratu ahal izango dira Goi Mailako Teknikarien Kidegoko Geologiako lizentziaturaren, Kimikako lizentziaturaren, Ingeniaritza Nautiko eta Itsas Garraioko lizentziaturaren edo edozein aukeratako Ingeniaritzaren edo aurrekoekin ofizialki homologatutako titulazioen plazak edo Administrazioako Goi Mailako Kidegoko plazak integrazioz edo deialdi publiko bidez eskuratu zituzten funtzionarioak; betiere, eskalan eskatzen den titulazioa badute eta lege hau indarrean sartu aurreko bi urteetan beren behin betiko destinoa aipatutako eskalari atxikitako lanpostuetan izan badute.*

*Lege hau indarrean sartu aurreko bi urteetan beren behin betiko destinoa aipatutako eskalari atxikitako lanpostuetan izan eta eskala horretan integratu ezin duten funtzionarioek, eskatutako titulaziorik ez edukitzeagatik, beren lanpostuetan jarraituko dute aurrerantzean, ordu arte bete dituzten baldintza beretan. Hala ere, aipatutako eskalari atxikitako lanpostuak hornitu ahal izango dituzte, aipatutako lanpostuak betetzeko gaitzen duen espezializazioko ikastaroren bat gaindituz gero. Poliziaren eta Larrialdietako Zerbitzuen Euskal Ikastegiak antolatzen eta ematen dituen ikastaro horiek ez dira izango 20 kreditutik beherakoak."*

5. Larrialdietako eskalan integartzeko aukera, betiere, lanpostu-zerrenda lege honetara egokitu izana argitaratzen denetik sei hilabeteko epean gauzatuko da. Borondatez integartzeko aukera erabiltzen ez dutenek ordu arteko baldintza beretan utsiko diete beren lanpostuei, hau da, lanpostu horiek betetzen jarraituko dute.

6. Beren eginkizunen arabera larrialdiei aurre egiteko eskalako lanpostu gisa birsailkatzen diren lan-kontratuko lanpostuak, berriz, funtzionarizatu egingo dira. Horrelako lanpostuak betetzen dituzten lan-kontratuko langileek, edo eszedentzia-egoeran daudenek (beren lanpostua gordetzeko eskubidea dutela), lege hau indarrean sartzean, aipatutako eskalarako lehiaketa-oposizioko sistemaren bidez deitutako barne-sustapeneko hautaketa-prozesu murriztu batean parte hartu ahal izango dute, betiere titulazioaren baldintza eta gainerakoak betetzen badituzte; ondorio horietarako, meritu gisa balioetsiko dira lan-kontratuko langile finko gisa emandako zerbitzuak eta izaera hori eskuratzeko gainditutako hautaketa-probak.

Hori gainditzen duten langileak karrerako funtzionario izendatuko dira, eta lan-kontratuko langile finko gisa betetzen zuten lanpostuari atxikiko, lan-kontratuko langile finko gisa zeukaten antzintasun bera eta jaso izan duten gutxieneko soldata bermatuta.

Hautaketa-prozesu hori borondatez eskuratzen edo gainditzen ez duten langileek betetzen dituzten lanpostuetan iraungo dute, sustapen profesionaleko igurikimenei kalterik egin gabe.

### **BIGARREN AZKEN XEDAPENA.- TESTU BATEGINA PRESTATZEKO GAIKUNTZA.**

Baimena ematen zaio Jaurlaritzari, lege hau indarrean sartu eta hamabi hilabeteko epean, Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen testu bategina egin dezan. Testu bategina honetara mugatuko da: bi legeak testu bakarrean biltzera eta artikulua, kapituluak eta xedapenak behar den neurrian berriro zenbakitzera, bai eta testu bakarrean bildu beharreko lekeen barne-bidalketak zenbakera berrira egokitzea ere.

### **HIRUGARREN AZKEN XEDAPENA.- INDARREAN JARTZEA**

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

**Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkezteko**

**Vitoria-Gasteizen, 2014ko**

**Estefanía Beltrán de Heredia Arróniz  
SEGURTASUN SAILBURUA**